

## Larrialdietarako Arabako Funtsak 29.500 euro bideratu ditu Kamerungo gatazka armatuak kaltetutako herritarrei laguntzeko

Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren laguntzak balio izango du oinarrizko elikagaiak eta tresnak emateko 200 familiari

**Gasteiz, 2019ko otsailaren 11.** Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak eraturako Larrialdietarako Arabako Funtsak (LAF) 29.500 euro bideratu ditu Kamerungo armadaren eta talde armadunen arteko erasoek kaltetutako herritarrei bizirauteko beharrezko dituzten oinarrizko elikagaiak eta tresnak emateko. Laguntza, zehatz-mehatz, honetan datza: Afrikako herri horretako hego-mendebaldeko Méme departamenduko Kumba hiriko 200 familiarentzako lehen sorospenerako oinarrizko elikagaiak eta tresnak ematean.

Iragan abendutik hona areagotu egin dira armadaren eta talde armadunen arteko liskarrak Kamerungo ipar- eta hego-mendebaldeko lurraldeetan. Liskar horiek jatorri dute inguru ingelesdunek Gobernu zentralarekin dituzten desadostasunetan eta eskaera sozio-politikoetan.

Eraso armatu horiek oso areagotu dute segurtasun eza eta, ondorioz, ugariak dira hilak borrokan ari diren taldeetako kideen eta herritarren artean. Era berean ohikoak dira herritarren bahitzeak eta beste giza eskubide batzuen urraketak; alegia, ohikoak dira erailketak, bortxaketak, emakume eta neskatxoek aurkako indarkeria, desagertzeak, armetan altxarazitako mutikotxoak eta beren herria uztera behartutako herritarrak. Horiei guztiei kalte material ugariak gehitu behar zaizkie; hala nola, herritarren lursailak suntsitzea eta ondasun eta dendak arpilatzea.

NBERen Arazo Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoaren iritziz lau milioi pertsona dira kaltetuak, eta horietatik 1,3 milioi ezin dituzte beren oinarrizko beharrak ase. 400.000 pertsonak baino gehiagok alde egin behar izan dute beren etxeetatik segurtasun ezaren eta indarkeriaren erruz.

Méme departamenduari gagozkiola, horra bideratu da Larrialdietarako Arabako Funtsaren laguntza, 135.000 dira laguntza eskatzen dutenak eta milaka



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prentsa Oharra Nota de Prensa

beren herrietatik alde egin behar izan dutenak. Horietako gehienek egurats gorrian egiten dute lo eta gainerakoek eskola edo elizetan. Hauek dira atzemandako premiarik handienak: elikagaiak, oinarrizko osasun arreta, sukaldeko lanabesak, arropa eta higienarako gaiak.

Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak eskatu du Larrialdietarako Arabako Funtsaren laguntza. Eta laguntza hori tokian bertan Coeur d'Amour Elkarteak eskainiko du. Talde hori 2016az geroztik ari da lanean inguru horretan bakea berreskuratu eta sendotzeko, eta bien bitartean larrialdi humanitarioetarako proiektu bati daragoio, indarkeriaren biktimei eta beren herrietatik kanporatuei laguntzeko.